



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.01.21

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria

Nerea Letamendia Beloso

Jokin Azkue Arrastoa

Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea :

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita batean, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Tolosaldea Garatzen kontsumitzailearen bulegoa kudeatzeko 2018 urteko ekarpena onartzea.
3. Tolosako Haurren Kontseilua diseinatu eta garatzeko zerbitzu kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko.
4. Onartzea 2019ko Iñauterietako karroza eta konpartsetan parte hartzeagatik dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.
5. Onartzea Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren luzapena.
6. 77/2018 eta 78/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urtarrilaren 17an egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



2. TOLOSALDEA GARATZENI KONTSUMITZAILEAREN BULEGOA KUDEATZEKO 2018 URTEKO EKARPENA ONARTZEA.

Aurrekariak:

I. 2018ko azaroaren 21ean, 9061 sarrera zenbakiarekin, Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziak Kontsumitzailearen Bulegoko kudeaketaren 2018 urteko ekarpena egitea eskatu zuen.

II. Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzenekin Kontsumitzailearen Bulegoa kudeatzeko 2014/12/31n sinatutako hitzarmenaren arabera, 2018an kontsumitzailearen Bulegoaren zerbitzua kudeatzeagatik Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpenaren kopurua ondorengoa da:

 KIUB (Kontsumitzailearen Bulegoa)**14.169,50€**

III. Ekarpenaren diru kopurua desglosatuta ondorengoa da:

2018ko zerbitzuaren kostua guztira	37.786,00 €
KontsumoBIDEtik aurreikusitako finantzazioa	-9.447,00 €
Finantzazio ondorengo kostua	28.339,00 €
Tolosako Udalari dagokiona (%50)	14.169,50 €

IV. Tolosako Udaleko 2018ko aurrekontuetan 1100.422.01.430.10 partidan 15.500€ aurreikusten dira ekarpena egiteko.

V. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1 artikulua (25) idatz-zatian xedatutakoaren arabera, udalerriek, eskumen propioak erabili ahal izango dituzte tokiko ekonomia eta gizarte-garapenean eta tokiko enplegu-plan edo politiketan.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosaldea Garatzen kontsumitzailearen bulegoa kudeatzeko 2018 urteko ekarpena onartzea eta 14.169,50 euroko ordainketa egitea.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzeni ematea.



3. TOLOSAKO HAURREN KONTSEILUA DISEINATU ETA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN LIZITAZIOA HUTS DEKLARATZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Haurren Kontseiluaren diseinua eta garapenaren zerbitzua.
Unitate sustatzailea:	Kultura, Festak eta Gazteria
Espedientea:	2018SABI0003

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Alkate-Udalburuak 2018ko irailaren 3an egindako probidentziaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 2018ko azaroaren 28an Gazteria Teknikariak egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean. Halaber, aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen zituen; gainera baliabide propio nahikoak ez-izatea ere justifikatzen zuen eta horretan oinarrituta, lizitazioa egitearen beharra justifikatzen zuen.

Hirugarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 10ean onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak; lizitazioaren deialdia, berriz, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen 2018ko abenduaren 10ean.

Laugarrena.- Lizitaziora enpresa bakarrak aurkeztu zuen bere proposamena ABEE (UTE) izaerarekin: GALEMYS, S.L. eta ARTELATZ INGURUMEN ZERBITZUAK, SL eraturakoa, hain zuzen ere. Hauek hiru gutun-azal independenteetan aurkeztu zuten dokumentazioa eta, beraz, lizitaziora onartuak izan ziren. 2019ko urtarrilaren 7an, erreferentziako zerbitzu-kontratuaren lizitazioaren "A" gutun-azal ireki zen eta errekerimendua egin zitzaion aurkeztutako dokumentazioa zuzendu zezan.

Bosgarrena.- 2019ko urtarrilaren 11n kontratazio teknikariak txosten bat igorri zuen aipatutako errekerimenduaren ondorioz, enpresak aurkeztutako dokumentazioa ondo zuzenduta zegoela esanez eta lizitazio prozedurarekin aurrera jarraitzeko proposatuz.



TOLOSAKO
UDALA

Seigarrena.- 2019ko urtarrilaren 14an kontratazio mahaiak bildu zen lizitazioaren “B” gutun-azala irekitzeko, eta bertan ikusi zen enpresak aurkeztutako memoriak ez zuela aktibitateen ordu kopurua azaltzen BAPPearen azaltzen den moduan, eta aktibitateen egutegia eta hasiera data ez zetozeela bat pleguetan ezarritakoarekin. Bestalde, “A” gutun-azalean proposatutako lan taldea eta “B” gutun-azalean aurkeztutakoa ez zetozen bat.

Zazpigarrena.- Aurreko gutzia aintzat harturik, kontratazio mahaiak kontratazio organoari proposatu zion aipatutako kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko, aurkeztutako proposamen bakarrak ez zuelako BAPPearen ezarritakoa betetzen.

3.-APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2019ko urtarrilaren 14an kontratazio mahaiak proposatutakoa jarraituz, aipatutako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko.

BIGARRENA.- Huts deklaratu dela iragartzea kontratatzailearen profileen.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Idazkaritza, Kontuhartzaitza eta Kultura Departamentuei jakinaraztea.

4. ONARTZEA 2019KO IÑAUTERIETAKO KARROZA ETA KONPARTSETAN PARTE HARTZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK.

Tolosako udalak herri-dinamizazioa, sustapena eta parte-hartzea du helburu herritarren artean.

Hala, Iñauteriak dira bereziki herritarren parte-hartze horren erakusle nagusia, eta horregatik, Iñauteriak dira parte hartzeko eremuan Udalak esku-hartzeko lana egin dezakeen esparru handienetakoa da.

Parte hartzea sustatzeko moduen artean, lehiaketa bidez banatu ohi diren dirulaguntzen deialdia dago.



TOLOSAKO
UDALA

Helburu hau betetzeko, 2019ko aurrekontu orokorretan 30.000 euroko kopurua onartu zen 0800 48101 33800 partidan.

Aurrerakin hauek guztiak aztertuta, eta 2019an festen arloko sustapenari laguntzeko, baloratu da dirulaguntzak banatzeko deialdietan zein hobekuntza eta aldaketa egin litezkeen, aurreko urtekoen aldean .

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako udalerriko herritarrei Iñauterietako karroza eta konpartsetan parte hartzeagatik 2019rako dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia irekitzea. Oinarriak honako hauek dira:

2019KO IÑAUTERIETAKO KARROZA ETA KONPARTSETAN PARTE HARTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK

HELBURUA

Iñauterietan karrozetan eta konpartsetan parte hartzeagatik dirulaguntzak eskatzeko prozedura arautzea. Dirulaguntzak 2019ko Iñauterietan parte-hartze aktiboa sustatzeko izango dira, eta duten proiektio eta interesagatik bat etorriko dira udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuaren programen helburuekin.

ESKATZAILE MOTAK

1. Karrozak:

- Plataformaren gutxieneko neurriak: 2,5 m zabal, 7 m luze eta 1 m altu.
- Derrigorrezko baldintzak: ibilgailu baten gainean egina edo atoian eramana, soinu ekipoa, emanaldia, su-itzalgailua eta gutxienez 5 partaide.

2. Konpartsak:

- Plataformaren gutxieneko neurriak: 2 m zabal eta 3 m luze.
- Derrigorrezko baldintzak: emanaldia.

3. Plataformarik gabeko konpartsak:

- Plataformarik ez duten konpartsak.



TOLOSAKO
UDALA

- Derrigorrezko baldintzak: emanaldia.

ESKAERAK

Izen-emateak Udaletxeko Sarrera Erregistroan egingo dira, 07:15tik 14:15era, edo Udalaren web orrian (www.tolosa.eus). Epea: 2019ko urtarrilaren 23tik otsailaren 15era.

Izena emateko bi fitxa egongo dira, eskatzaile motaren arabera:

1. Karrozen formularioa (I. Eranskina): derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak, kide guztien zerrenda, lehiaketan parte hartu nahi duten eta dirulaguntzaren aurrerapena egitea nahi ote den.
2. Konpartsaren formularioa (II. Eranskina): derrigor aipatu beharko dira ordezkariaren datuak eta lehiaketan parte hartu nahi ote duten.

Izena emandakoan, zenbaki bat jasoko du parte hartzaileak. Zenbaki hori, emanaldian, bistan jarri beharko du.

DIRULAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzen banaketa irizpide hauen arabera egingo da:

EKARPEN FINKOAK

KARROZAK

- **Irteera egun kopuruak:**
 - Bi egun: 1.100 euro.
 - Egun bakarra: 800 euro.

KONPARTSAK

- **Konpartsaren tamaina:**
 - >5 m: 300 euro.
 - 3,5 - 5 m: 150 euro.
 - <3,5 m: 95 euro.
- **Partaide kopurua:** 7 euro partaideko.
- **Zuzeneko musika:** 100 euro.
- **Antzezpena:** 60 euro.
- **Koreografia:** 40 euro.



TOLOSAKO
UDALA

EKARPEN ERLATIBOAK

Ekarpen erlatiboak ekarpen finkoen gainean egingo da eta Karrozek zein Konpartsek jaso ahal izango dute.

- *Gizon-emakume parekidetasuna:*
 - *Partaideen erdia edo gehiago emakumezkoak badira, % 10 gehiago.*
- *Euskararen erabilpena:*
 - *Emanaldia euskara hutsean, % 10.*
 - *Emanaldia elebitan, % 5.*

Irizpide hauek kontuan harturik, jaso beharreko diru kopuruak, diru-laguntza honetarako onartuta dagoen kopurua gaindituko balu, diru-laguntza guztien murrizpen proportzionala egingo da.

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntza jaso ahal izateko, Iñauteriaren ondoren, derrigor aurkeztu behar dira (on line edo Udaletxeko Sarrera Erregistroan):

- *Karroza edo konpartsaren datuak (III. Eranskina).*
- *Karroza edo konpartsaren argazki bat eta bideo bat. Argazkian parte hartzaile guztiak eta plataforma garbi ikusi behar dira. Bideoan emanaldia erakutsi beharko da. WeTransfer bidez bidaliko da informazio guztia festak@tolosa.eus helbide elektronikora bidaltzailearen identifikazioa ondo bermatuta.*

Argazkia, bideoa eta datuak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 15ean bukatzen da, 14:15ean. (Piñata igandearen hurrengo ostirala).

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauen banaketa aurkezten diren karroza eta konpartsen artean banatuko da, oinarri hauetan onartutako irizpideen arabera.

Iñauterien ondoren, karrozek eta konpartsek aurkeztutako datuak, argazkia eta bideoa ikusita, Udalak dagokion erabakia hartuko du.

DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen ordainketa Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.



TOLOSAKO
UDALA

Iñauterien aurretik, berariaz aurrerapena eskatu duten karrozek, diru-laguntzaren ekarpen finkoaren % 50 jaso ahal izango du parte-hartzea prestatzeko.

AURREKONTUKO PARTIDA

Helburu hau betetzeko 2019ko aurrekontu orokorretan 30.000 euroko kopurua onartu zen, 0800 48101 33800 partidan.

DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BETE BEHARREKO ARAUAK

- **Berdintasun** irizpideak betetzea:
 - *Oro har, modu positiboan baloratuko dira harreman parekoak islatzen dituzten karrozak eta konpartsak, edota emakumezkoen partaidetza bultzatzen dutenak eta emakumeenganako edo bestelako identitate sexualenganako pentsamolde diskriminatzaileak saihesten dituztenak (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak). Balorazioa egin aurretik, epaimahaikideei berdintasun irizpide horien xehetasunak helaraziko zaizkie.*
- *Jende aurreko **alkohol kontsumo ohiturak eredugarriak** izan behar dute. Zentzu horretan, galarazita dago edari alkoholikoak agerian eramatea eta sustatzea. Alkohola modu arduratsuan kontsumitzea helduek, aldean behin, neurritz eta kontuz egitekoa da.*
- **Konpartsak** egiteko **ez dira kotxeak erabiliko.**
- *Konpartsek ezin izango dituzte **jaimak** edo **karpa txikiak** instalatu.*
- *Konpartsa edo karrozatan **ez da publizitaterik egingo.***
- *Ibilbidea:*
 - **Karroza eta konpartsa handientzat eta izena ematen duten konpartsa txikientzat ibilbide bat** dago, eta bertan **geldirik** egongo dira: *Rondilla kalea, San Frantzisko kalea, Oria kalea, Nafarroa etorbidea eta Foruen Etorbidea. Ibilbide horretan toki finko bat nahi duten konpartsa txikiek eskatu egin behar dute. Tokiak zozketa bidez banatuko dira. San Frantzisko ibiltokian egotea egokitzen zaienak Leidor/Beotibar aldeko espaloiarenean kontra jarri behar dute.*
- **Txarangak** *uneoro errespetatu behar dira, batik bat kalejira garaian, bai gorakoan, baita beherakoan ere. **Kalejiraren ibilbideak libre** egon behar du (Zezen plaza, Oria Kalea, San Frantzisko Kalea, Trianguloa, Korreo Kalea, Berdura plaza). Ibilbidean eta alboetan dauden karroza konpartsen **musika ekipoak itzalita egongo dira 18:00etatik 20:00etara.***



- **Ordutegia:** karroza eta konpartsen emanaldi guztiek **23:00etan amaitu** behar dute, eta ezin dute goizeko 09:00ak baino lehenago hasi. Emanaldirik ez dagoen bitartean, musika baimendutako **bolumenaren erdira jaitsi** beharko da gutxienez. Musika gaueko 01:00etan amaituko da.
- **Soinuaren bolumena:** Karroza konpartsen **soinu ekipoak** gehienez **1.500 W** izango ditu. **Egunez**, Karroza eta konpartsetatik 10 metrora egingo diren soinu neurketek ezingo dituzte **90 dBak** gainditu. **22:00etatik aurrera**, soinuaren bolumenaren muga **65 dBkoa** izango da.
- **Zarataren kontrolerako eremu berezia: Trianguloa eta San Frantzisko kaleko 1 eta 2** atarien artean (San Frantzisko Eliza eta Kutxabank), zuzeneko musika egiten duten konpartsak baino ez dira onartuko. Eremu honetan kokatu ahal izango diren konpartsa hauek identifikazio zenbaki koloredun berezia izango dute. Gainerako konpartsa ibiltari guztiek ezingo dute bertan geldirik luzaro egon eta igarobidean musika aparatuak itzalita izan beharko dituzte.

OINARRIAK URRATZEAGATIKO NEURRIAK

- **Disko konpartsek**, hau da, musika anplifikatua jartzeaz gain beste jarduerarik egiten ez duten konpartsek, **ez dute dirulaguntzarik jasoko**.
- Oinarrietan xedaturikoa ez betzeagatik eta **Udaltzaingoaren parte eta salaketa** jasotzen duten konpartsei **% 66 kenduko** zaio esleitutako dirulaguntzatik.
- **Gehiegizko zarata** maila dutenak eta zarataren kontrolerako **eremu berezia** betetzen ez duten konpartsei **% 100 kenduko** zaie esleitutako dirulaguntzatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

5. ONARTZEA UDAL ERAIKINAK ETA HIRI ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LUZAPENA.

1.- AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko uztailaren 26an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko adjudikazio prozedura arautzen zuten Balditza Administratibo Partikularren Pleguak eta Baldintza Tekniko Partikularren Agiria onartu zituen. Adjudikazio prozedura, prozedura ireki bidez egitea onartu zen eta gainera, erregulazio armonizatupeko kontratua zen.



Bigarrena.- 2016ko uztailaren 28an aipatutako xedea zuen kontratazio iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean aurreikusitakoa betez.

Hauek ziren oinarritzko datuak:

- Xedea: Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua.
- Kontratu mota: Zerbitzuak.
- Tramitazioa: Arrunta eta prozedura irekia.
- Epea: 2 urtekoa, beste 2 urteko luzapena aurreikusten zelarik
- Prezioa: 436.000,00 euro urtean (BEZa barne)

Hirugarrena.- Litzitazioa irekita zegoela eta enpresek euren proposamenak aurkezteko epea irekita zegoela, 2016ko irailaren 12 egindako Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen prozedura bertan behera uztea, lizitatzailer batek adjudikazio irizpideetako bat baliogarria ez zela esan zuelako eta gainera, kontratuaren zenbatekoa merkatuko prezio errealekin bat ez zetorrelako. Erabaki hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.

Laugarrena.- 2016ko irailaren 13an Obra eta Zerbitzuak Departamentuko Koordinatzaile zenak eta Obra Departamentuko Arduradunak txosten bat igorri zuten aipatutako xedea duen kontratazioa berriz ere martxan jartzeko. Txosten hura, ikerketa ekonomikoa ere bazuen.

Bosgarrena.- 2016ko irailaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, berriro ere udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko adjudikazio prozedura arautzen zuten Balditza Administratibo Partikularren Pleguak eta Baldintza Tekniko Partikularren Agiria onartu zituen. Adjudikazio prozedura, prozedura ireki bidez egitea onartu zen eta gainera, erregulazio armonizatupeko kontratua zen.

Seigarrena.- Aipatutako xedea zuen kontratazio iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean aurreikusitakoa betez.

Zazpigarrena.- Litzitaziora hiru enpresek aurkeztu zituzten euren proposamenak: Eulen, S.A., Garbaldi, S.A. eta Comercial de Limpieza Villar, S.A., hain zuzen ere.

Zortzigarrena.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2016ko abenduaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua, Eulen, S.A. enpresari esleitu zion, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 445.684,97 euro urtean (368.334,69 euro printzipala eta 77.350,28 euro BEZa).



- Epea: bi urte kontratua sinatzen zenetik, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Bederatzigarrena.- Horiek horrela, 2017ko otsailaren 1ean, Tolosako udaleko Alkate-Udalburuak eta Eulen, S.A. enpresaren ordezkariak, udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua izenpetu zuten, aurretik 18.416,73 euroko bermea jarri zutelarik, aurreko zatian azaldutako ezaugarri nagusiekin. Horren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.

Hamargarrena.- Azaldu bezala, lehen lizitazioa bertan behera geratu zenez eta bigarrena 2017ko otsailaren 1ean hasi arte, 2017. urteko urtarrilean garbiketa zerbitzua mantendu ahal izateko, 2016ko abenduaren 30ean kontratu bat sinatu zen Eulen, S.A. enpresarekin, hilabeteko epe horretan aurretik ematen zuten zerbitzua mantentzeko.

Hamaikagarrena.- 2018ko abenduaren 28an, Antonio Rufo Gómez jaunak, Eulen S.A. enpresaren izenean eta ordezkapenez, idatzi bat aurkeztu zuen Udal erregistroan, 10040 sarrera zenbakia, non udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua beste bi urtez luzatzeko eskera egiten zuen, 2019ko otsailaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra arte, hain zuzen ere.

Hamabigarrena.- Udal Ingeniariak 2018ko abenduaren 21ean, kontratuaren luzapena eskatuko zela aurreikusiz, txosten bat igorri zuen ordainketen zuzenketa proposatuz, hitzarmen berria indarrean sartzearen ondorioz. Txosten horretan, KPIaren eguneraketa proposatzen du eta horretarako Euskadiko eta Nafarroako KPIekin media ponderatu bat ateratzen du, %0,45 hain zuzen ere. Halaber, kalkulu guztiak egin ondoren, pleguetan akats bat dagoela esaten du eta jarraian udal eraikin bakoitzagatik ordaindu beharrekoa zehazten du.

Hamahirugarrena.- Udal Ingeniariak Eulen, S.A. enpresak egindako lana ontzat ematen du eta kontratua luzatzearen aldeko proposamena egiten du, berak egindako prezioen berrikuspenarekin.

Hamalauugarrena.- Kontratazio teknikariak 2019ko urtarrilaren 4ean luzapenaren aldeko txostena igorri zuen, hau esanez: *“Lehena.- Aurreko guztia kontuan hartuta, bidezkoa da udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratuaren luzapena onartzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat eta Udal kontuhartzaileak baiezkota ematen badu. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumen duen organoak.*

Bigarrena.- Kontratuaren luzapena gehienez, 2019ko otsailaren 1tik, 2021eko urtarrilaren 31 bitartean egingo da.

Hirugarrena.- Kontratuaren luzapenean prezioa berrikustea, Udal Ingeniariak igorritako txostenaren arabera, beti ere udal Kontu-hartzailetzak oniritzia ematen badu.”.



TOLOSAKO
UDALA

Hamabosgarrena.- Udal Kontuhartzaileak 2019ko urtarrilaren 17an igorritako txostenaren 3. eta 4. puntuetan, hau esaten du: *“3º.- La revisión de precios aparece expresamente prevista en la cláusula cuarta de dichos pliegos. Además esta materia se regula en la cláusula decimonovena de dichos pliegos estableciendo una limitación que no es acorde con la propuesta presentada. Es por ello que se propone, que la revisión de precios que corresponda se acuerde posteriormente, siendo de aplicación desde el 1 de febrero de 2018.*

4º.- La adjudicación en 2017 se realizó conforme por importe de 445.684,97€ conforme consta en la primera de las columnas. A pesar de ello se ha detectado que en 2018 se ha reducido la prestación del servicio en el Ayuntamiento y en E.P.A. sin que se haya tramitado modificación alguna del contrato.

Además de ello, en octubre del 2018 el Ayuntamiento de Tolosa traspasó la gestión de los frontones de Uzturpe y Beotibar a Tolosa Lantzen, S.A. sin que se hayan dejado de recibir facturas por la prestación de servicios en dichas instalaciones y que constan con el visto bueno del técnico correspondiente, no siendo prestaciones que se deban de realizar al Ayuntamiento de Tolosa.”.

2.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Araubide juridikoa: Luzapenari dagokionean, bai Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 5. klausulak, baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 4. klausulan ere, kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango zela jasotzen du. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea beste bi urtez luzatu ahal izango dela xedatzen du, berariaz eta bi aldeek adostasunarekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 303. artikulua xedaturikoari jarraiki.

Halaber, administrazio kontratu mota guztietako luzapenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23. artikulua 2. atalak honako hau xedatzen du: *“2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el periodo de duración de éstas y que la concurrencia para su adjudicación haya sido realizada teniendo en cuenta la duración máxima del contrato, incluidos los periodos de prórroga. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, salvo que el contrato expresamente prevea lo contrario, sin que pueda producirse por el consentimiento tácito de las partes.”.*

Kasu honetan, proposatzen den luzapena ohiko izaera du.

Prezioen berrikuspena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 89. artikuluan eta hurrengoetan, Administrazio Publikoetako kontratuen prezioak berrikusteko xehetasun



TOLOSAKO
UDALA

hauek ematen ditu, 2016ko abuztuan indarrean zegoen Legearen bertsioan: *“1. Los precios de los contratos del sector público solo podrán ser objeto de revisión periódica y predeterminada en los términos establecidos en este Capítulo. No cabrá la revisión periódica no predeterminada o no periódica de los precios de los contratos. Se entenderá por precio cualquier retribución o contraprestación económica del contrato, bien sean abonadas por la Administración o por los usuarios. 2. Previa justificación en el expediente y de conformidad con lo previsto en el real decreto al que se refieren los artículos 4 y 5 de la Ley 2/2015, de desindexación de la economía española, la revisión periódica y predeterminada de precios solo se podrá llevar a cabo en los contratos de obra, en los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas y en aquellos otros contratos en los que el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años. Dicho período se calculará conforme a lo dispuesto en el real decreto anteriormente citado. No se considerarán revisables en ningún caso los costes asociados a las amortizaciones, los costes financieros, los gastos generales o de estructura ni el beneficio industrial. Los costes de mano de obra de los contratos distintos de los de obra, suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas, se revisarán cuando el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años y la intensidad en el uso del factor trabajo sea considerada significativa, de acuerdo con los supuestos y límites establecidos en el Real Decreto.”.*

Aurrekoa aintzat harturik eta udal kontu-hartzaileak igorritako txostenean jasotakoa kontuan hartuz, kontratuaren luzapen honek, ez luke prezioaren berrikuspenik ekarriko momentu honetan; erabaki hori hurrengo momentu baterako utzi behar baita, behin gorabehera hauek argituta:

- 2017an, prozedura jarraitu gabe, egindako kontratuaren aldaketa.
- Beotibar eta Uzturpe frontoietan egindako lanen kitapena.
- Prezioen berrikuspena.

Organo eskuduna.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena, kontratazio organoari dagokio.

Kasu honetan, kontratazio-organoa Tolosako Udaleko Alkate-Udalburua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del*



presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.”, baina 2015/1278 Alkatetza Dekretu bidez Alkate-Udalburuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetu zituen hainbat eskuduntza, horien artean, era guztietako kontratazio eta kontzesioak 60.000,00 eurotik gorakoak, baldin eta ez badute gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten %10, ezta sei milioi euro ere; beraz, aurrekoa kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarra da kontratuaren luzapena onartzeko eskumena duen organoa.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratuaren **luzapena onartzea**, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaitan eskumen duen organoak.

BIGARRENA.- Kontratuaren luzapena gehienez, 2019ko otsailaren 1tik, 2021eko urtarrilaren 31 bitartean egingo da.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren luzapenean prezioa berrikustea ez da orain erabakiko, aurrekarietan azaldutako gorabeherak argitu behar baitira eta horiek erregularizatu egin beharko dira dagokion jardunbidea jarraituz.

LAUGARRENA.- Aipatutako zerbitzua udal kontu-hartzailearen txostenean aipatutako udal aurrekontuko partidaren kargura finantzatu da, horretarako eta aipatu bezala dagokion kredituaz hornitu beharko da.

BOSGARRENA.- Eulen, S.A. enpresari luzapenaren berri ematea eta kontratuaren luzapena formalizatzea. Horretarako, eta aipatutako arrazoiengatik, nahiz eta prezioa errealitatera egokitua ez dagoen, hura sinatu ahal izateko, 2019.urtean (11 hilabete) 408.544,51 euroko zenbatekoa jartzen da. Hala ere, beharrezkoa izango da lehenbailehen, arestian aipatutako gorabeherak erregularizatzea eta ondorioz, dagozkion erregularizazioak egitea, beti ere prozedura jarraituz.

SEIGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzailetzako Departamentuari ematea legezko txostena igor dezaten.



TOLOSAKO
UDALA

ZORTZIGARRENA.- Luzapen honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea..-

6. 77/2018 ETA 78/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **77/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **390,685,76 €**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 77 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **78 /2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **98.423,75 €**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 78/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00 etan.



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEA

IDAZKARIA